# La iniciativa 'Orain ardura-Ahora responsabilidad' convoca nueva concentraciones este 25J

ORAIN ARDURA :: 20/06/2020

La iniciativa Orain Ardura pide a las instituciones responsabilidad a la hora de gestionar los fondos públicos en esta situación de crisis económica y sanitaria

Orain ardura ekimenak elkarretaratzeak deitu ditu orain ardura!!!!
AHTren DIRUA GASTU SOZIALENTZAT!!!!

Orain Ardura ekimena, krisi ekonomiko eta sanitario honetan, erakundeei funts publikoak kudeatzeko erantzukizuna eskatzen dien kanpaina da. Pertsonen osasuna eta bizi-baldintzak jokoan dauden honetan, azken horien ongizatea bermatzeko behar adina baliabideak ziurtatzea eskatzen du. Hori dela eta, oinarrizko beharrak asetzeko ez diren gastu erraildoiak (EHan Abiadura Handiko Trena eta “porlanarizazioaren sukarraldiko” proiektu guztiak) geldiarazi eta diru hori gizartebeharretara bideratzea eskatzen da.

Hilabete honetan, hainbat kolektibo sozial eta sindikalek zein norbanakoek manifestu bat sustatu dugu. Manifestua maiatzaren 26an aurkeztu zen Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako lau hiriburuetan, osasun-krisia gehien pairatu duten tokietan: ospitaleetan, zaharren egoitzetan...
Manifestu osoa kontsultatu eta pertsonen eta kolektiboen atxikimendua gehitu daiteke hemen: orainardura.wordpress.com.

Data horretatik, manifestuak onespen zabala ekarri du: 150 kolektibo sozial, ingurumeneko eta sindikal baino gehiagok eta 1800 norbanako inguruk sinatu dute gaur egun. Eta hau ideia horiek gizarte osora eramaten saiatuko den kanpaina baten hasiera besterik ez da.

Helburu horrekin, eta gizarte-zerbitzuetan baliabiderik ez dagoela salatzeko, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldientzako hipoteka astuna ekarriko duten gizarteonurarik gabeko proiektuetan xahutzen diren bitartean, Orain Ardurak elkarretaratzeak deitu ditu. Ekainaren 25ean, osteguna, izango dira EAEko eta Nafarroako lau hiriburuetan, baita beste hainbat herritan ere. Herritarrak animatu nahi ditugu elkarretaratzetara joan daitezen eta osasuna eta gizarte-zerbitzu publikoak eta kalitatezkoak indartzeko beharra aldarrika dezaten.

Gainera, aste honetan argitaratu den Europako Kontu Auzitegiaren txostena azpimarratu nahi genuke, gure tesiei bultzada handia ematen dielako. Horregatik eta bizi dugun krisi larria dela eta, uste dugu inoiz baino garrantzitsuagoa dela sektore gehiagoren inplikazioa, ardura eta erantzukizuna nagusitu daitezen.

Elkarretaratzeen zerrenda

ARABA
• Gasteiz: Santiago Ospitalea, 11: 00etan.
• Agurain: Zahar-egoitza, 19: 30ean.

• Erribera Beitia - Ribabellosa: Osasun etxea, 18: 00etan.
NAFARROA
• Iruñea:
o Sanduzelai: Osasun etxea, 19:00etan
o La Misericordia Zahar- egoitza, 19:30ean.
o Etxabakoitz: Osasun etxea, 19:30ean.
• Altsasu: Aita Barandiaran Egoitzan, 19: 30ean.
• Aoiz: Udaletxeko enparantza, 19:30ean
• Barañain: Osasun etxe berria, 19: 00etan.
• Castejon: Solidaridad Zahar-egoitza, 19:30ean.
• Elizondo: Herriko plaza, 19:30ean.
• Etxauri: Osasun etxea, 19:30ean.
• Leitza: Herriko enparantza, 19:30ean
• Lizarra: Osasun exea, 12:30ean.
• Orkoien: Osasun etxea, 19:30ean.
• Tafalla: Osasun etxea, 19:30ean.
BIZKAIA
• Barakaldo: Gurutzetako Ospitalea, 11: 00etan.
GIPUZKOA
• Donostia: Donostia Ospitalea, 11: 00etan.
• Billabona: Santiago egoitzan 18:00etan.
Orain da garaia erakundeek arduraz joka dezaten eskatzeko.
ORAIN ARDURA
orainardura.wordpress.com

---

**[Castellano]**

La iniciativa 'Orain ardura-Ahora responsabilidad' convoca diferentes concentraciones

La iniciativa Orain Ardura – Ahora Responsabilidad es una campaña que pide a las instituciones responsabilidad a la hora de gestionar los fondos públicos en esta situación de crisis económica y sanitaria. En un momento en el que están en juego la salud y las condiciones de vida de las personas, exigimos que se garanticen los recursos necesarios para asegurar su bienestar. Por ese motivo, exigimos que se paralicen los gastos faraónicos de proyectos prescindibles (como el Tren de Alta Velocidad en Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa, o todos aquellos proyectos fruto de la fiebre por el cemento) y se destine el dinero que se despilfarra en ellos a las necesidades sociales.

Durante este mes, diversos colectivos sociales y sindicales, así como personas a titulo individual hemos promovido un manifiesto en esos términos. Manifiesto que fue presentado el pasado 26 de mayo en las 4 capitales de la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra, en los puntos que más han sufrido la crisis sanitaria: hospitales, residencias de ancianos...

Se puede consultar el manifiesto completo y añadir la adhesión de personas y colectivos en: orainardura.wordpress.com.

Desde esa fecha, el manifiesto ha concitado una amplia adhesión: más de 150 colectivos sociales, medioambientales y sindicales, y unas 1800 personas lo han suscrito a día de hoy. Y esto es solo el principio de una campaña que intentará llevar estas ideas a toda la sociedad.

Con tal objetivo, y para denunciar la falta de recursos en los servicios sociales mientras se dilapidan en proyectos sin utilidad social que supondrán una pesada hipoteca para generaciones actuales y futuras, Orain Ardura – Ahora Responsabilidad convoca diferentes concentraciones. Se celebrarán el jueves 25 de junio en las 4 capitales de la CAV y Navarra, así como en otras muchas localidades.

Animamos a la ciudadanía a que acuda a las mismas y reivindique la necesidad de reforzar la sanidad y los servicios sociales públicos y de calidad. Además nos gustaría remarcar el informe del Tribunal Europeo de Cuentas que fue publicado esta semana, ya que supone un espaldarazo a nuestras tesis. Por ello y por la grave crisis en la que nos encontramos creemos que es más importante que nunca la implicación de más sectores para que la lógica y la responsabilidad se imponga.

Lista de las concentraciones:
ALAVA
• Vitoria/Gasteiz: Hospital de Santiago, a las 11:00.
• Agurain: Residencia, a las 19:30.
• Ribabellosa: Centro de Salud, a las 18:00.
NAVARRA
• Pamplona/Iruñea: - Residencia La Misericordia, a las 19:30.
- Etxabakoitz: Centro de Salud, a las 19:30.
- San Jorge: Centro de Salud, a las 19:00.
• Altsasu: Residencia Aita Barandiaran, a las 19:30.
• Barañain: Centro de Salud nuevo, a las 19:00.
• Tafalla: Centro de Salud, a las 19:30.
• Etxauri: Centro de Salud, a las 19:30.
• Orkoien: Centro de Salud, a las 19:30.
• Aoiz: Plaza del Ayuntamiento, a las 19:30.
• Leitza: Plaza del pueblo, a las 19:30.
• Lizarra: Centro de Salud, a las 12:30.
• Castejón: Residencia Solidaridad, a las 7:30.
• Elizondo: Plaza del pueblo, a las 19:30.
BIZKAIA
• Barakaldo: Hospital de Cruces, a las 11:00.
GIPUZKOA
• Donostia: Hospital Unibersitario Donostia, a las 11:00.
• Billabona: Resdencia Santiago, a las 18:00.
Ahora es el momento de exigir que las instituciones actúen con responsabilidad.
ORAIN ARDURA
orainardura.wordpress.com

https://eh.lahaine.org/la-iniciativa-orain-ardura-ahora